

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Atzera begirako rockaren jostun trebeak



There hereafter.
Supersweet.
Autoekoizpena.
Iraupena: 39'10".
10 euro.

Askok gogoratuko dute Señor No, eta baita, jakina, Imanol gitarra eta Andoni bateria-jotzailea ere; ez dira-eta ahazteko errazak. Aspaldian Small Thingseko Alvarorekin batera beste koordinada batzuetan lanean ari dira, are eta trebeago. Milurtekoaren hasieran Chico Boom taldea osatu eta dotorezia handiko rocka jotzen aritu ziren, baina taldea desagertzen utzi zuten. Orain, hirukote bihurtuta eta Alvarok teklatuekin baxua ordezkatur, Supers-

weet izenpean 1960ko hamarkadako garagea, popa, psikodelia tanta batzuk eta rock-and-roll gitarreroa dituen gorbatadun proposamena dakarte beso azpian. Detaile guztiak zainduta daude erabat eta Imanolen ahotsa hobetu bada ere, koroak eta melodiak borobilak dira. Begiak itxi eta The Who, TSOOL eta garage-popa ukitu ahal izango dituzu. Ederra!

www.supersweetsound.com

Imanol G. Alcon - Supersweet

«Egiten duguna hemen eta orain disfrutatzeko da, baina gerorako gelditzea ere ondo legoke»

Ahalegin handia behar da bakarrik aurrera egiteko?

Ahalegin handia egiteaz gain, egiten duzun horretan erabat sinetsi behar duzu, ezinbestekoa da. Garai hauetan taldearen alde lan egin eta maila onari eustea oso zaila da. Baina gure buruekin oso zorrotzak gara.

Non gelditu zen Chico Boom? Lana eta kredituak banatzeko unea heldu da?

Inoiz baino gusturago nago. Chico Boom bakarkako proiektu gisa jaio zen eta gerora talde bihurtu zen ia halaberharrez. Orain talde bat gara eta guztiok ardura berdina dugu. Chico Boom lozorroan dago momentuz.

"Bultzada hartzeko teklatu jotzailea jarri iezadazu eta urrun helduko naiz (bateria gutxietsi gabe, jakina)". Hori al da zure leloa?

Oso zorionsua naiz mundu zati honetako bi musikari onenatarikoak alboan ditudalako. Biek duten tek-

nika, jotzeko era eta izateko modua ikaragarriak dira.

"Hereafter". "Hemen eta orain" jada ez da nahikoa?

Jakina baietz. Egiten dugun guztia hemen eta orain disfrutatzeko da, baina horrek guztiak jarraipena izatea nahiko genuke, hor gelditzea.

The Who, The Soundtrack Of Our Lives eta Beatles gabe hemen egongo zinateke?



Supersweet taldea. Imanol G. Alcon lehena da ezkerretik.

Guztiaren ama dira aipatutakoak, baina badira bestelako eragin batzuk ere: batez ere, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako artistak. Musika konposatzerakoan estiloei zein gure eraginei begiratu gabe musika ona egiten saiatzen gara.

Gaur egun oso talde gutxik zaintzen dituzte koro eta armoniak zuek beste...

Lan handia dakar eta zaila da afinazioari eustea. Inoiz ahotsak bakarrik lantzeko entseguak egin izan ditugu, nork eta nola egitea erabakitzeko.

Chico Boom abiadura bizian heldu zen, baina desagertuz joan zen. Zer lehenatasun emango diozue Supersweeteri?

Chico Boomek oztupo asko izan zituen aurrean: lana, osasun arazoak, bestelako proiektuak... Orain hau da gure proiektu bakarra; hortaz, galdutako erritmoa berreskuratu nahi dugu. ■

